

30. ARRASATE LITERATUR LEHIAKETAK - OINARRIAK

AED elkarteak antolatutako “Arrasate literatur lehiaketek” 30 urte bete dituzte aurten; 30 urte, Debagoiengan, euskarazko literatura, irakurtzeko zaletasuna eta sormena sustatzen. Bestalde, martxan da Ekin Emakumeak, Txatxilipurdi eta AED elkarteek abian jarritako “Zurekin Arrasate euskaldunago” kanpaina. Eta, horiek horrela, lehiaketen edizio honetan, sari berezi bat emango dugu, Batxilergotik gorako mailan “Arrasate euskalduna” gaia jorratuz aurkezten diren lan guztien artean. Gainerakoan, horra hor parte hartzeko oinarriak:

- Lehiaketa honetan Debagoiengan bizi, lan egin edo ikasten duen edonork parte har dezake.
- Soilik euskarazko lanak eta inoiz saritu edota argitaratu gabekoak aurkez daitezke.
- Gaia librea da lehiaketa eta adin maila guztietan. Dena dela, Batxilergotik gorako mailan, sari berezi bat eman zaio “Arrasate euskalduna” gaia jorratzen duen lanik onenari.
- Parte hartzaile bakoitzak nahi beste lan aurkez dezake.
- Idazlanak tarte bikoitzez eta ordenagailuz idatzita aurkeztu behar dira.
- Lan guztiak lelo batez sinatuko dira.
- Lanak aurkezteko bi modu egongo dira aukeran:
 1. Posta elektronikoz: Bi dokumentu bidali behar dira helbide honetara: aed@aedelkartea.eus
Bi dokumentu horietako batean lehiaketara aurkeztutako idazlana joango da, lelo batez sinatuta eta egilearen izenik gabe. Bestean, berriz, datu hauek zehaztuko dira:
 - Idazlanari jarri zaion leloa
 - Egilearen izen-abizenak (bat baino gehiago bada, guztienak aipatu)
 - Jaiotze-data
 - Ikasturte honetan zein mailatan dabilen
 - Etxeko helbidea
 - Posta elektronikoa eta kontakturako telefono zenbakia
 2. Paperean inprimaturik: Idazlanaren hiru kopia aurkeztu behar dira, lelo berarekin sinatuta hiruak. Horrekin batera gutun azal itxi bat aurkeztuko da, arestian aipatutako datu guztiak zehaztuz barruan.
- Lanak AED elkartean aurkeztu behar dira, aed@aedelkartea.eus e-postaraz edo Pablo Uranga 4, behea. 20500 Arrasate helbidera bidaliz.
- Lanak aurkezteko epea 2017ko martxoaren 31n bukatuko da.
- Epaimahaia AED elkarteak aukeratutako pertsonak osatuko dute.
- Finalisten zerrenda 2017ko maiatzaren 5ean kaleratuko du epaimahaiak AED-ren web gunean (www.aedelkartea.eus) eta tokiko hedabideetan.

- Behin betiko irabazleen izenak 2017ko maiatzaren 11n egingo den sari-banaketa ekitaldian jakinaraziko dira.
- Aurkeztutako lanek gutxienezko kalitaterik ez balute, sariak hutsik uzteko erabakia har dezake epaimahaiak.
- Horra hor lehiaketa eta adin maila bakoitzari dagozkion sariak eta aurkeztu beharreko lanen gutxi gorabeherako luzerak:

IPUINA

MAILA	LANEN LUZERA	SARI NAGUSIA	2. SARIA
LH5-LH6	1-2 orrialde	100 €	Oparia
DBH1-DBH2	1-2 orrialde	125 €	Oparia
DBH3-DBH4	2-4 orrialde	150 €	Oparia
Batxilergotik gora	3-5 orrialde	200 €	Oparia

POESIA

MAILA	LANEN LUZERA	SARI NAGUSIA	2. SARIA
LH5-LH6	20 lerrotik gora	100 €	Oparia
DBH1-DBH2	25 lerrotik gora	125 €	Oparia
DBH3-DBH4	30 lerrotik gora	150 €	Oparia
Batxilergotik gora	35 lerrotik gora	200 €	Oparia

BERTSO-PAPERAK

MAILA	LANEN LUZERA	SARI NAGUSIA	2. SARIA
LH5-LH6	Hiru bertso	100 €	Oparia
DBH1-DBH2	Lau bertso	125 €	Oparia
DBH3-DBH4	Bost bertso	150 €	Oparia
Batxilergotik gora	Sei bertso	200 €	Oparia

“ARRASATE EUSKALDUNA” SARI BEREZIA BATXILERGOTIK GORAKOENTZAT

ATALA	LANEN LUZERA	SARIA
IPUINA	3-5 orrialde	OPARIA ETA URTE BATERAKO BAZKIDETZA
POESIA	35 lerrotik gora	
BERTSO-PAPERAK	Sei bertso	